

“Fracking-arekin ziria sartu nahi digute”

Antonio
Aretxabala

Geologoa eta Nafarroako Unibertsitateko irakaslea

“Gasa eta petrolio *fracking* sistemen bidez ateratzea espekulazio burbuila bat da. Burbuila hori lehertu egin da, eta hondakin eta zor mordoa utzi du bidean”. Antonio Aretxabala geologoa eta Nafarroako Unibertsitateko irakaslea da, eta *frackinga* erabiltzearen aurka dago, haren iritziz, ingurumenari kalte egiteaz gain, ez delako teknika errentagarria, energia asko behar du-eta erregaia ateratzeko. Bera energia berriztagarrien erabilera areagotzearen aldekoa da; batez ere, etxeetan autokontsumoa sustatu behar dela dio, eta modu jasangarriaren kontsumitu: “Ez dugu behar 4x4 bat ogia erostera joateko”.

Oso argi daukazu gauzak... *Fracking*-garekin ziria sartu nahi digute. Burbuila lehertu egin zen, eta hondakin eta zor mordoa utzi du bidean, nahiz eta izango den tarteko espekulazio mugimenduekin dirua egin duen jendea. Nolanahi ere, ‘fracking’a ez da salbazioa, eta AEBak ez dira autoaskiak energetikoki, hala esan den arren.

Orduan, zein da egoera egiaz? Energiaren AEBtako agentziak aitortzen du hidrokarburoak ateratzen aritzen diren 127 enpresa handiek (edozein metodo erabiltzen dutela ere) bilioika dolarreko zorrak pilatu dituztela 2010. urteaz geroztik. Energia ekoizpen guztiari eragiten dion arazoa da. 2005. urteaz geroztik, petrolio gainbehera doa etengabe. *Frackinga* edo Kanadako harea bituminosoak (ohikoa ez den petrolio mota bat da, guztiz kutsatzailea) ahalegin desesperatuak dira erregai fosilak erretzen dituen ekonomia ereduari eusteko.

Frackingaren aldekoek esaten dute herritarrek desinformatu egiten direla. Duela urte batzuk esaten zuten gauza bera esaten dute, baina ordutik hona azterketa asko argitaratu dira. *Frackinga* berrikuntza bat da erre-

gaia ateratzeko teknologiari dagokionez, baina betiko gauza bera egiteko: erregaia erre, energia sortzeko.

Orduan, petrolio bukatzeko ari al da? Beti izango da petrolio. Arazoa da gero eta energia gehiago behar dela petrolio ateratzeko. Nahasi egiten da zer den baliabidea eta zer erreserba. XX. mendearen erdian, ehun upel petrolio atera zitezkeen upel bati zegokiona gastatuz. Gaur egun, upel batekin hamabost ateratzen dira, eta hori Saudi Arabiako erreserbarik onenetan. Orain ez dago erraz ateratzen den petroliorik. *Fracking*arekin, bi upel behar dira bat ateratzeko, eta zorpetuta lortzen da. Jendeak kezkatu egin behar luke hurrengo bizpahiru urteetako energia hornidurak sortuko dituen arazoekin. Hurrengo belaunaldiek ordaindu egin beharko dute hondamendi hau.

Aipatu izan da ohiko ekoizleek petrolioaren prezioa merkatzea erabaki dutela *fracking* enpresak merkatutik ateratzeko helburuz. Jarduera ekonomikoa izugarri erortzen ari delako jaitsi dira prezioak. Petrolio *stock* handia dago pilatua, eta ez da saltzen, ez dagoelako energia eskaririk, baina ez ustezko gerra makiaveliko batean sartu direlako herrialde arabiarrek eta AEBak, Errusia edo Venezuelak.

Frackingari aurka egiteko arrazoia zer da, ekonomikoa gehiago ingurumenari dagokiona baino? Ez, alderdi guztiak biltzen ditu. Hala ere, egiaz, berraztertu egin behar da egungo eredu ekonomikoa; ez diezaiokegu eutsi ez *fracking*arekin eta ez gainerrako erregai fosilekin ere.

Zer egin behar litzateke? Lehenik, gizartea informatu diagnostikoa izan dezan, eta erreazionatu. Bigarrenik, erakundeetako arduradunek ongi aholkatuta egon behar lukete. Eta, hirugarrenik, deshazkunderari ekingo dion

mundu bat planteatu, non bukatu egin den erraz ateratzeko moduko petrolio.

Berriztagarriek arindu ote litzakete arazo horiek? Eredu ekonomikoaren aldaketa soziala bada, bai, baldin eta baliabide horiek eskura badaude. Alemanian, adibidez, eraikinak autoaskiak dira energetikoki, eta Espainian, aldiz, zigortu egiten da.

Espainiako Industria, Energia eta Turismo Ministerioa *fracking*aren aldekoa da, haren esanetan, horri esker, txikiagoa delako inportazioekiko mendekotasuna. Espainian, argiaren faktura izugarri handia da, mantendu egin behar delako sistema. Alemanian, berriz, duela gutxi, opari eman dute argia zenbait unetan, asko ekoitzi dutelako eguzki energia fotovoltaikoaren bidez.

Fracking teknikaren aldekoek nabarmentzen dute Espainiak izugarriko aukerak eskaintzen dituela. *Frackinga* zulo energetiko bat da, eta zorra gero eta handiagoa da. Itxaropena da teknologiak lortuko duela orain errentagarria ez dena etorkizunean izatea, baina zientzia fikzioa da. Kanarietan antzeko zerbitu gertatu zen. Norbaitek dirua egin zuen prospekzio horiekin, eta zer aurkituko, eta bi poltsa zeudela, batere balio ez zutenak. Espekulazio mugimenduak dira.

Hala ere, baikorra al zara etorkizunari begira? Gizarteek gaitasuna dute egoerarik txarrenei gaina hartzeko. Baditugu zenbait aukera energia berriztagarriak gehitzen badira. Jaitsi egin behar litzateke kontsumoa: ez dugu behar 4x4 bat ogia erostera joateko, edo ez dugu zertan ekarri kiwiak Zeelanda Berritik. Zoriontsuak izan gaitzke eta bizi maila ona edukiko gaur egun gastatzen dugun energiaren %20rekin bakarrik. Ez da hain zaila, eta iraunkorra da.

✚ www.consumer.es

